

PLAN INTEGRALA CEIP KUETO HLHI 2014-2015

IKASTURTEA

1.- PLAN INTEGRALAREN JUSTIFIKAZIOA ETA ARDATZAK

DIAGNOSIA

Bere hasieratik, CEIP KUETO HLHI ingurunearekiko eta berrikuntzarekiko duen inplikazioagatik nabarmendu den zentroa izan da.

Gure zentroa Sestaoko gune ertainean kokatuta dago, baina bere eragin-esparrua udalerraren behealde guztira zabaltzen da, infra-etxe gehienak kokatuta dauden lekura, alegia.

Une honetan 445 ikasle ditugu, eta horietatik 325 bekadunak dira.

Gure zentroko familien indize sozio-ekonomikoa -1i dagokio, azken urteotako proba diagnostikoen arabera.

Gure kasuan, euskara familia-hizkuntza gisa ez da iristen % 8ra, komunitatearen maila % 23 inguruan kokatuta dagoen arren. Bestelako hizkuntzek % 14ko presentzia dute, eta horiek Euskadin % 5,6ko mailan kokatzen dira.

Kultura-aberastasuna handia da, gure atzerriko ikasleak % 15 inguru dira (Euskadiko batezbestekoa % 5,3koa da) eta ikasle ijitoak % 10.

Ikasleen egokitasunari dagokionez, gure batezbestekoa % 80 ingurukoa da, eta komunitatean,, aldiz, % 90ekoa.

Matrikulari dagokionez, nabarmentzekoa da ikasturtean zehar lekualdaketa eta matrikulazio berriak oso ohikoak direla, eta sarritan curriculum-desfase handia izaten da, baita eskolatu gabekoak ere.

Familiaren parte-hartzeari dagokionez, horietako batzuk nabarmentzen dira eskola-jarraipenaren parte-hartze eta laguntzan eta jarduera osagarrien antolaketan oso inplikaturik daudelako.

Datu horiek guztiak kontuan hartuta, gure zentroak argi izan du apustua egin behar zuela berrikuntza, prestakuntza, elkarbizitza eta parte-hartzearen alde, aniztasunari erantzun gisa eta emaitza hobekitzeko oinarritzko gako gisa.

Azken ikasturteotan garatzen ari garen prestakuntza-planen eta berrikuntza-proiektuen helburua da ikasle guztiek, bakoitzaren aukerak kontuan hartuta, euren gaitasunak ahalik eta gehien garatu ahal izatea, metodologia eta tresna bideratzaileak bilatuz. Curriculumaren arloan, curriculumarekin lotutako proiektu guztien ardatz egituratzaile gisa jotzen dugu Hizkuntza Normalkuntza Proiektua. Komunikazio-hizkuntzan ulermena eta adierazpena hobetzen badugu, bestelako arloen ikasketa erraztu eta bideratuko dugu.

Elkarbizitza Planak eta harrera-plan ezberdinek gure zentroko kideen harremanen alorraren eta emozionalaren oinarriak ezartzen dituzte, elkarbizitza on batek ikasketa ona bideratzen duela uste baitugu.

Parte-hartzeak, pertenezia-sentimenduak erraztuko dute zentroak komunitatean duen proiektzioa, baita komunitatea zentroan integratzea ere.

Ikasleen garapen integral eta orekatua sustatuko dituen eskolan sinesten dugu, erreferente gisa hartuz hezkuntza-kalitatea, aukera-berdintasuna, zuzentasuna, elkartasuna, justizia... guztioi jatorrien ezberdintasunak gainditzen lagunduko digutelakoan, eta pertsona sortzaileak, irizpidedunak, autonomoak, inizatibadunak eta jarrera ekintzailea dutenak sortuko direlakoan.

Hori guztia oinarri hartuta, eta gure Hezkuntza Proiektutik abiatuta, 2013-2014 ikasturtean planteatutako hobekuntza-planetik eta memorieta agertutako beharren arabera, 2014-2015 ikasturterako honako 4 ardatzetan oinarritutako plan integrala diseinatu eta garatzea da asmoa:

LIDERGO PEDAGOGIKOA

- ✓ Emaiza azterketa eta Hobekuntza plangintza
- ✓ Metodologia eta dinamika integratzaileak:
 - Ikasketa kooperatiboa
 - Bikoteka irakurtzen
 - Bikoteka idazten
 - Ikasle laguntzaile
 - Elkarreragile Taldeak
 - Tertulia dialogikoak

PLANGITZA ESTRATEGIKOAK

HEZKIDETZA ETA ELKARBIZITZA

- ✓ Elkarbizitza Plangintza
- ✓ Elkarbizitza behatokia
- ✓ Harrera Plana
- ✓ Hezkidetza plangintza

INFORMAZIO ETA KOMUNKAZIO TEKNOLOGIAK

- ✓ Web orria
- ✓ Samsung Proiektua
- ✓ Errekurtso teknologikoak: Tresnak eta programak

PLANGINTZA INTEGRALA KUETO HLHI 2014-2016

ANTOLAKUNTZA

- ✓ Lan taldeen definizioa
- ✓ Koordinazioa lehenengo erronka
- ✓ Dokumentuen behaketa eta eguneraketa

- ✓ Etengabeko formazioa

- ✓ Ebaluazio prozesuak

PARTEHARTZEA

- ✓ PROGRAMAK: AMUGE, Bidelaguna, Artizar
- ✓ Familiekin lan bateratua:
 - Geletako guraso delekatuak
 - Gurasoen Elkartea
 - Ama ijitoen taldea
- ✓ Kanpoko agenteekiko partehartzea
 - Aldundia
 - Udala
 -
- ✓ Bolondresen komisioa

1. LIDERGO PEDAGOGIKOA

Lan pedagogikoa ikasle guztiek oinarrizko gaitasunak bereganatzera bideratu nahi dugu lehentasunez, euren gaitasunak ahalik eta gehien garatuz.

Horretarako, gure lan-ildoak ikasleak euren ikasketaren protagonista izan daitezen bideratuta dago. Irakasleek hautatu eta sailkatuko dituzte curriculum-materialak taldearen beharretara hobekien egokitzen diren ikasketa-atazak diseinatuz. Talde-lana eta ebaluazioa izango dira prozesu honetako bi elementu garrantzitsuetakoak.

Hezkuntza-eredu inklusiboa garatu nahi dugu, proposamen metodologiko berriekin, berdinen arteko elkarreragina bideratuz lehentasunez, baina hezkuntza-komunitateko bestelako eragileen esku-hartzeari ere lekua eginez.

Lankidetzako ikaskuntza estrategia metodologiko garrantzitsua izango da ikasketaren auto-erregulazioa bideratzeko, baita parte-hartzearena, ahozko komunikazioarena, laguntzarena, enpatiarena... ere.

2. PROIEKTU ESTRATEGIKOAK.

Eskola ikasketa integralerako gune gisa ulertzen dugu, ikasleek bizitzen eta elkarbizitzen ikasteko aukera izango duten leku gisa, euren ezberdintasunean garatzekoa, euren ikasketaren protagonista izango direneko, bakoitzak behar duen curriculum-erantzuna ziurtatuz.

Horregatik, gure zentroko irakasleok berrikuntzaren aldeko apustua egin dugu, beti ere gure ikasleen zati baten arrakala kultural eta soziala txikituko duten proiektuak, metodologiak... ikertu, esperimentatu eta praktikara eramateko asmoz. Gure asmoa da zuzentasuna eta aukera-berdintasuna hitz hutsalak izan baino, gure egunerokoa gida izan daitezen.

Ildo horretan, garrantzi nabarmena eman nahi diogu eskola-giroari ikasketa bideratzeko elementu gisa, baita ikasketa eta emaitzen hobekuntza erraztuko duten tresnen bilaketari ere.

Gure proiektuak errendimendu altua dutenen eta errendimendu baxua dutenen arteko distantzia murriztera daude eta egongo dira bideratuta, horrek gizarte-ezberdintasunak murrizten ere lagunduko duelako.

Ikasten duen eskola izan nahi dugu, eta bagara, bakoitzak bere potentzialtasun pertsonal, sozial eta akademikoak ahalik eta gehien garatuko dituen eskola, eta horretarako, aniztasunari erantzuteko ekimen ezberdinak sustatzen ditugu, gure testuinguru sozialarekin bat eginez.

Horregatik, proiektu global honen barruan bi proiektu estrategiko planteatu ditugu, koedukazioa elkarbizitzaren zein emaitzen hobekuntza gisa, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien erabilera bi alderditan: alde batetik, ikasketa-elementu motibatzaile gisa eta, bestetik, berdintasun sozialerako tresna gisa, baliabide horretarako sarbidea modu globalizatuan erraztuz.

3. ANTOLAKETA

Prestakuntza-plan fokalizatuko planak hasi zirenetik, gure zentroa, garatzen aritu garen proiektu ezberdinen bitartez, etengabeko hobekuntzara bideratutako prozesu dinamikoak sortzen ahalegindu da, modu gutxi gorabehera esplizituan.

Egoera eta testuinguru ezberdinen ebaluazioak eta azterketak bideratu dute gure lidergo pedagogikoa, eta berau etengabeko prestakuntzari lotuta egon da, gure hezkuntza-komunitate aberatsa osatzen duten behar, errealitate, testuinguru... ezberdinei erantzuteko beharrezkoa baita.

Hori guztia era mailakatuan kudeatzen joan gara, baina izaera globaleko proiektu honi esker, kudeaketa hori zirkulu itxurakoa izatea nahi dugu, guztia esfera berberaren inguruan antola dadin modu argi eta osagarrian, integrazioa ez dadin izan gainkarga bat, baizik eta tresnak integratu eta erraztuko dituen egitura berria.

Koordinazioa elementu gakoa da horretarako. Lantaldeen osaketak eta aldizkako planifikazioak parte-hartzea sustatuko duten eta konpromisoak hartzea erraztuko duten lan-dinamikak sortuko dituzte. Prozesu berrien jarraipena eta proiektzioa egitea izango da helburua. Horrek lotura izango du helburu eta helmugak zehazteko gako diren dokumentuen berrikusketak eta eguneratzearekin eta, nola ez, baita irakasle-taldearen prestakuntza eta birziklatze beharrekina ere.

Ebaluazioak barne-ebaluazioaren kultura finkatzea bilatzen du, eskola parte-hartzaile, berritzaile eta kalitatezkoaren atal oso garrantzitsu gisa.

4. PARTE-HARTZEA LANKIDETZA

Parte-hartzea eskolaren hobekuntzarako funtsezko ardatza da. Familien parte-hartzea sustatzeak eta hezkuntza-proiektuaren parte-hartzaile sentiarazteak integrazioa erraztuko du eta hezkuntzaren eragile eta arduradun sentitzea ekarriko du.

Parte hartzeko eta komunikatzeko bideek garrantzi handia dute prozesu honetan guztian, eta horregatik bilatuko ditugu horiek garatzeko formularik egokienak. Pertenentziaren zentzua sustatu nahi dugu, baita parte-hartze aktiboarena ere.

Beharrezkoa da beste elkarte eta erakundeekiko elkarlana bultzatzea ekintza-plan bateratuak ezartzeko, inklusibitateko neurriak sustatuz eta garatuz.

Eskola ingurunera irekitzea beharrezkoa da, hezkuntza-eremu integral gisa. Zentroaren proiektzioa bi noranzkotan landu nahi dugu, eskolaren ingurunerako proiektzioa indartuz eta boluntarioaren irudia finkatuz, ingurunea zentroan txertatzeko elementu gisa.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

1. Gure hezkuntza-eredua eguneratzea
2. Gure hezkuntza-proiektuarekin bat datorren Koedukazio Plana izatea
3. Aniztasunaren arreta-plana eguneratzea
4. Gure ikasleen emaitza akademikoen hobekuntza lortzea alor guztietan
5. Zentroaren antolaketa eta funtzionamendua finkatu eta horretan aurrera egitea, ezarritako hobekuntza-helburuak lortzeko
6. Gaitasun digitala sustatzea zentroaren jarduera-esparru guztietan

HELBURU OROKORRAK ETA EKINTZAK

1. Gure koedukazio-plana martxan jartzea
2. Teknika eta metodologia ezberdinetan sakontzea, bikaintasunerako eta emaitzen hobekuntzarako
3. Berrikuntza-jardueretan aurrera egitea, 2.0 tresnak erabiliz
4. Aniztasunaren arreta-plana egituratzea, ikuspegi inklusibotik
5. Zentroaren dokumentazio guztia eguneratuta edukitzea, kudeaketa-elementu aktibo gisa
6. Giza baliabideak eta erabilgarri dugun denbora optimizatzea, diseinatutako plan eta programa ezberdinek sortutako beharrei modu egokian aurre egiteko.
7. Irakasleei eguneroko jarduera bideratzeko baliabideak eta tresnak ematea, Sailak, eskualdeko Berritzeguneak edo zentroak eskaini eta antolatutako barne-prestakuntzaren berariazko prestakuntzaren bitartez.
8. Komunikazio-estrategia diseinatzea, eta laguntzaileak identifikatzea

Helburu zehatzak zein ekintzak eta ebaluazio-adierazleak gure proiektu integralean kontuan hartuko ditugun ardatzetan garatuko dira.

HARTZAILEAK

Klaustro osoa, langileak, familiak eta boluntarioak.

PLANGINTZA ETA EGUTEGIA

Proiektu bakoitzak bere koordinazio-batzordea izango du, aldian behin bilduko dena. Batzorde horrek izango du jarduerak dinamizatzeko ardura, proposamenak egitekoa, informazioa zikloetara eramatekoa eta horiek egingo dituzten ekarpenak jasotzekoa.

Lehen hiruhilekoan, aurreko ikasturteetan hasitako jarduerak abiatuko dira, eta proposamen berriak diseinatuko dira. Era berean, irakasleen prestakuntza-plana abiatuko da.

Hurrengo hiru ikasturteetarako plan estrategiko bati buruz ari gara, honakoa da gure planifikazioa:

2014/2015 Ikasturtea

- Koedukazioari dagozkion diagnostiko eta sentsibilizazio faseak egin, hezkuntza-komunitateko estamentu guztien artean
- Berdinen arteko ikasketari eta 2.0 web-tresnen erabilerari buruzko prestakuntza-plana diseinatu
- Metodologia horiek ikasgelan ezarri
- Boluntario gehiago lortzeko estrategia diseinatu
- Aniztasunaren arreta-plana berrikusi eta eguneratu
- Zentroko dokumentazioa eguneratu, euskarri digitalean
- Irakasleen koordinazioa bideratu
- Zentroaren webgune berria ireki

2015/2016 Ikasturtea

- Egunerokoan egin ahal izateko jarduerak diseinatu, edozein egoeratan koedukatzea ahalbidetuko digutenak
- Zentroko dokumentazioa genero-ikuspegitik berrikusi
- Eskolen garapen zein antolaketa aldatu eta hobekuntzak txertatu, aurreko ikasturtearen ebaluazioaren arabera
- Zentroak eskuragarri dituen baliabide digitalak optimizatu
- Irakasleen prestakuntza-planarekin jarraitu
- Irakasle, familia eta kanpo-eragileen arteko koordinazio-sistema eraginkorra ezarri

2016/2017 Ikasturtea

- Genero-ikuspegia kontuan hartu zentroko jarduera guztietan
- Ikasgelako programazioetan finkatuta dauden berrikuntza-jarduerak txertatu
- Zentroko kide guztiek lan-ildo berbera dugula bermatu
- Ikasleekin elkarlaneko ikasketa-ingurunea erabili
- Beharrian berriak hauteman

PROIEKTUA EBALUATZEKO ETA EMAITZAK NEURTZEKO IRIZPIDEAK

Ebaluazioa programa edo proiektu bakoitzean ezarritako irizpide, adierazle eta momentuen arabera egiten joango da.

Proiektu osoaren jarraipena eta ebaluazioa batzorde pedagogikoak egingo du. Lehen urtean, batez ere, proiektuaren nondik norakoen ebaluazio jarraitua beharko dugu, beharrezkotzat jotzen diren doiketak txertatze aldera.

Ikasturte bakoitzaren amaieran, proiektuaren ebaluazioa egingo dugu, eta bertan ikusiko ditugu zeintzuk izan diren lorpenak, baita hurrengo ikasturterako hobekuntza-proposamenak egin ere.

2.- ARDATZ BAKOITZAREKIN LOTURIKO HELBURU ETA JARDUERAK

A.- LIDERGO PEDAGOGIKOAREKIN LOTURIKO HELBURU ETA JARDUERAK

HELBURU OROKORRAK	HELBURU ZEHATZAK	KRONOGRAMA			LORPEN ADIERAZLEAK
		14-15	15-16	16-17	
1.Hobekuntza-neurriak ezartzea baliabideak optimizatuz, ebaluazio diagnostikoaren eta ikasleen ikasturte amaierako ebaluazioaren emaitzak aztertu ondoren.	1.1.Hobekuntza-plana egitea ebaluazioaren emaitzen arabera eta irakasleek memoria-txostenetan egindako proposamenen arabera.	X	X	X	-Orduategien egokitzapena -Errefortzu-saioen kopurua -Diseinatutako errefortzu-planen kop.
2.Teknika eta metodologia ezberdinetan sakontzea, bikaintasunerako eta emaitzen hobekuntzarako.	2.1.Euskararen erabilera zuzena sustatzea ahoz zein idatziz eskolako zein eskolaz kanpoko jardueretan, curriculumaren garapen arruntean eragina izan dezan. (Hizkuntz Normalizazio Plana)	X	X	X	-Ikasleen emaitza akademikoak
	2.2. “Bikoteka irakurtzen” proiektuarekin jarraitzea 2. zikloko ikasleekin irakurketaren mekanika eta ulermena hobetzeko, baita programaren bidez ikasle tutore eta tutorizatuen arteko harremana hobetzeko ere.	X	X	X	-Ikasleen emaitza akademikoak <ul style="list-style-type: none">ulermenari dagokionez.-Familien asebetetze maila
	2.3. “Bikoteka idazten” proiektua abiatzea 3. zikloko ikasleekin, idatzizko adierazpena eta ikasleen arteko harremana hobetzeko jarduera-programaren bitartez.			X	X

	<p>2.4. “Lankidetzako ikaskuntza” proiektuarekin jarraitzea haur hezkuntzako 5 urtekoekin eta lehen hezkuntzan, eta haur hezkuntzako 3 eta 4 urtekoetara zabaltzea berdinen arteko ikas-estrategiak garatze aldera helburu komunak lortzeko, horien ardura talde osoarena izanik.</p>	X	X	X	<ul style="list-style-type: none"> -Ikasleen emaitza akademikoak ahozko adierazpenari dagokionez. -Ikasleen arteko harremanak -HBEko ikasleen integrazio maila
	<p>2.5. “Talde interaktiboak” eta “Curriculumari buruzko tertulia dialogikoak” dinamikekin jarraitzea lehen hezkuntzako 3., 4. eta 5.ean (boluntarioen arabera) ikasleen artean pentsatzen ikastea eta estrategiak, ideiak eta argudioak adieraztea sustatzen jarraitzeko.</p>	X	X	X	<ul style="list-style-type: none"> -Ikasleen autonomia maila atazak egitean eta taldearen inplikazioa -Ikasleen adierazpen eta argumentazio maila -Boluntarioen asebetetze maila.
	<p>2.6. “Ikasle laguntzaile” planarekin jarraitzea, lehen hezkuntzako 2.etik 6.erako ikasleak haur hezkuntzakoekin eta lehen hezkuntzako 1.koekin euskaraz komunikatzeko gai direla jabe daitezen, eta hizkuntzaren erabileran txikientzako erreferente izan daitezen.</p>	X	X	X	<ul style="list-style-type: none"> -Ikasle laguntzaileen jarrera haur hezkuntzakoekin euskara erabiltzearekiko -Haur hezkuntzako zein lehen zikloko tutoreen asebetetze maila.

JARDUERAK	BALIABIDEAK	ARDURADUNAK
1.1 Talde bakoitzeko tutore-taldeek adostutako ebaluazio-irizpideak eta neurri zuzentzaileak ezartzea.	-Kanpo-probak -Zentroaren barne-ebaluazio probak.	Aholkularia Ikasketa-burua Tutore-taldeak
1.2. Ikasleen ebaluazioen emaitzei buruzko hausnarketa eta azterketa	-Banakako jarraipenerako txantiloak -HEBP	
1.3. Irakasleek egindako memoria-txostenetan irakaskuntza-ikasketa jardueraren hobekuntzarako proposamenak biltzea.	-Memoria-txostenak	
1.4. Hobekuntza-proposamena aurrera eramateko jardueren diseinua eta atazen banaketa.	-Txantiloak	
2.1. Hizkuntz Normalizazio Planean proposatutako jarduerak egitea, estamentu guztien parte-hartze eta inplikazioarekin.	-HNT koordinazio-saioak -Iraileko prestakuntza-saioak, berariazko hitzaldiak. -Sarean eskuragarri dauden material eta programak.	-Euskara-teknikariak -Irakasleak -Jantokiko langileak Eskolaz kanpoko jardueretako langileak
2.2. “Bikoteka irakurtzen” proiektuko jarduerak egitea, ikasleen zein familien inplikazioarekin.	-Egindako irakurketa-fitxak Familiak eta irakasle laguntzaileak	-Berritzeguneko aholkularia -Proiektuaren koordinatzailea -2. zikloko irakasleak
2.3. “Bikoteka idazten” proiektuko jarduerak egitea.	-Tipologia ezberdineko testu-ereduak	-Berritzeguneko aholkularia -3. zikloko tutoreak
2.4. “Lankidetzako Ikaskuntza” proiektuko jarduerak egitea haur eta lehen hezkuntzako tutoreen, berariazko irakasleen, Berritzeguneko aholkularien eta Ramon Lagoren (Vic-eko Unibertsitateko irakaslea eta proiektuaren zuzendaria) parte-hartzearekin.	-Prestakuntza- eta koordinazio-saioak -Dinamiketako materialak -Ikasleen erregistro orriak	-Berritzeguneko aholkularia -Proiektuaren koordinatzaileak -Irakasleak

<p>2.5. “Talde interaktiboak” eta “Curriculumari buruzko tertulia dialogikoak” programetan parte hartuko duten pertsona boluntarioen prestakuntza eta ordutegiak antolatzea.</p>	<p>-Boluntarioak</p>	<p>-2. eta 3. zikloetako tutoreak -Ikasketa-burua</p>
<p>2.6. “Ikasle laguntzaile” jarduerarako lehen hezkuntzako ikasleen aholkularitza eta ordutegien antolaketa.</p>	<p>-Ikasleak</p>	<p>-Haur hezkuntzako eta 1. zikloko tutoreak -Ikasketa-burua</p>

B.- PROIEKTU ESTRATEGIKOEKIN LOTURIKO HELBURU ETA JARDUERAK:

B.1. ELKARBIZITZA ETA HEZKIDETZA

HELBURU OROKORRAK	HELBURU ZEHATZAK	KRONOGRAMA			LORPEN ADIERAZLEAK
		14-15	15-16	16-17	
1. Zentroa egitura eta pertsonaz hornitzea eskola koedukatioaren eredu modu koordinatuan sustatzeko	1.1. Irakasleak eta hezkuntza-komunitatea gaitzea gure esku-hartzeak koedukaziotik eta genero-indarkeriaren prebentziotik egiten ditugula bermatzeko	X	X	X	-Egindako sentsibilizazio-saioak, komunitateko estamentu bakoitzaren proposamenen betetze-maila.
	1.2. Koordinazio-figurak eta egiturak garatzea zentroan koedukazioa eta berdintasunerako neurriak ezartzeko.			X	
2. Eskola koedukatio boranzko prozesu eraldatzaileak sustatzea	2.1. Hezkuntza-eredu koedukatioan sakontzea eta genero-ikuspegia kontuan hartzea irakasle gisako eguneroko jardunean.		X	X	-Sentsibilizazio- eta hausnarketa-saioetako aktetan islatutako proposamenen lorpen-maila.
	2.2. Diagnostiko- eta sentsibilizazio-faseak egitea hezkuntza-komunitateko estamentu guztietan.	X			-Estamentu guztien parte-hartze portzentajeak. -Diagnostikoaren emaitzak -Estamentu ezberdinei bideratutako sentsibilizazio-jarduerak.
	2.3. Genero-ikuspegia elementu estrategiko gisa txertatzea zentroko dokumentu guztietan, baita erabaki eta ekintzetan ere.	X	X	X	-Zentroko dokumentu ofizialetan sartu diren genero-ikuspegiari buruzko proposamenak.

	<p>2.4. Zentroaren errealitateak abiatuta, transmititutako BALIOAK aztertzea ikuspegi koedukativo batetik lan egiteko, gure ikasleen taldekako zein banakako beharriak asetz.</p>		X	X	<p>-Alor arruntetan genero-ikuspegitik ikasgelan ezarritako jarduerak.</p> <p>-Ikasgeletan eginiko tutoretza-saioak koedukazio, berdintasun eta genero-indarkeriaren prebentzioari buruz.</p>
	<p>2.5. Eskola-komunitatearen estamentu ezberdinen arteko koordinazioa sustatzea, Elkarbizitzaren Behatokia Koedukazio Planaren sustatzaile nagusia izanik.</p>		X	X	<p>-Estamentu ezberdinen koordinazio-batzarretako aktak.</p> <p>-Estamentu ezberdinek hobekuntzarako eginiko proposamen eta iradokizunak.</p>
<p>3. Genero-indarkeriaren eta edonolako indarkeriaren aurrean, prebentzio eta detekzio goiztiarrerako mekanismoak eta erantzun goiztiarrerako mekanismoak abiatzea</p>	<p>3.1. Genero-indarkeriaren gizarteratze prebentiboa sustatzea, biktimen babeserako erantzuna aktibatuz.</p>		X	X	<p>-Egindako jardueren balorazioa.</p>
	<p>3.2. Genero-indarkeria zein bestelako indarkerien aurrean azkar eta eraginkortasunez erantzuteko mekanismoak sortzea.</p>		X	X	<p>-Abiatutako protokolo eta programak.</p>

JARDUERA MOTAK (Hezkidetzaren eta Genero indarkeriaren prebentzioarako Proiektuaren baitako jardueraren guztien zerrenda)	BALIABIDEAK	ARDURADUNAK
<p>1.Berdintasunari buruzko diagnostiko lana egitea hezkuntza-komunitateko kide guztien artean galdetegiak banatuz lehen hiru hilabete zehar, proiektua abiatzeko.</p> <p>2.Datuen bilketa eta emaitzen azterketa</p> <p>3.Ikasturtean zehar, alor bakoitzeko unitate didaktikoen edo lan proiektuen eta dagozkien materialen azterketa maila edo departamentu bakoitzeko irakasleen aldetik, landuko diren gaiak genero-ikuspegia kontuan hartuz landuko direla konfirmatzeko eta berriazko jarduerak data zehatzetan txertatzea, hala nola azaroaren 25a, martxoaren 8a edo maiatzaren 17a.</p> <p>4.Estamentu bakoitzean diagnostikoaren emaitzen azterketa, bateratzea eta hausnarketa.</p> <p>5.Berdintasunari eta biolentziaren prebentzioari buruzko sentsibilizazio-, hausnarketa- eta sakontze-jardueren diseinua:</p> <p>-Eguneroko zereginetan rol tradizionalak ikus daitezkeen bideoak edo filmak ikustea, ipuinak edo abestiak irakurtzea</p> <p>-Genero-berdintasuna, rol eta estereotipo sexualak... eta abarri buruzko gizarte-arazoekin lotura duten eztabaida bideratuak egitea. (haur eta lehen hezkuntza, familiak)</p> <p>-Ikasleei indarkeriari buruz, oro har, edo genero-indarkeriari buruz hausnartzeko eta berriazko identifikatzeko aukera emango dieten material, proposamen eta/edo programak hautatu, egin edota eskuragarri ipintzea, horrekiko euren erantzun soziala aktibatuko dutenak, biktimak babestuz.</p> <p>-Ipuin tradizionalen azterketa eta ipuin alternatiboak biltzea edo egitea. (haur eta lehen hezkuntza)</p> <p>-Familiari orientazioa ematea, genero-ikuspegitik egindako ipuin edo ikus-entzunezko materiala erostean.</p>	<p>-Galdetegi ezberdinak, estamentuen arabera: Ikasleak, familiak, zentroko langile eta irakasleak.</p> <p>-Galdetegien emaitzak</p> <p>-Hausnarketak, iradokizunak eta ekintza-proposamenak jasotzeko dokumentuak</p> <p>-Ikasleen adinaren arabera bideoak edo filmak (ALDARTEren materiala, Arartekoa, Berritzegunearen webgunea, YouTube...)</p> <p>-Rol eta estereotipoekin lotutako gizarte-arazoei buruzko eztabaidak erraztuko dituzten testu edota bideoak</p> <p>-Ipuin tradizionalak eta genero-ikuspegia dutenak</p>	<p>-Proiektuaren koordinatzailea</p> <p>-Irakasleak eta hezitzaileak</p> <p>-Ikasleak</p> <p>-Familiak</p> <p>-Jantokiko zein eskolaz kanpoko jardueretako begiraleak</p> <p>-Langileak</p>

B.2. INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIAK

HELBURU OROKORRAK	HELBURU ZEHATZAK	KRONOGRAMA			LORPEN ADIERAZLEAK
		14-15	15-16	16-17	
1. Informazio eta komunikazioaren teknologiak erabiltzen ikastea, eta ikasteko erabiltzea.	1.1. IKTen erabilera berritzailea sustatzea ikasketarako.	X	X	X	-IKTekin lotutako jarduera berriak
	1.2 Zentroko ingurune birtuala sortzea administrazio- eta hezkuntza jarduerak kudeatzeko.	X	X	X	-Hezkuntza-jarduerak lehen hezkuntzako maila batean -Batzorde pedagogikoaren aktak argitaratzea
	1.2. Arbela digitalen erabilera zabaltzea haur-hezkuntza 5 urteetara, baliabide motibatzaile eta bideratzaile gisa.	X	X	X	-Egindako jarduerak
	1.3. IKTak zehazten eta testuinguratzen jarraitzea haur eta lehen hezkuntzako curriculum-alor ezberdinetan.	X	X	X	-Alor bakoitzean egindako jarduerak -Ikasleen autonomia-maila IKT baliabideen erabileran
	1.4. eTwining proiektuarekin jarraitzea 6. mailako ikasleekin teknologia berrien funtzionaltasuna indartzeko eta lan-esperientzia bat beste herrialderen bateko ikasleekin partekatzea.	X	X	X	-Ikasleen eta irakasleen lanaren balorazioa
	1.5. Tabletak integratzeko Samsung proiektua abiatzea 5. mailako ikasleekin curriculum lantzeko, teknologia berrien alorrean zentroan egindako lanari jarraikortasuna emate aldera.	X	X	X	-Proiektuaren balorazioa inplikaturako eragileen aldetik.
	1.6. IKT ataleko irakasleek diseinatutako “Kuetto Mass-Media” jardueran parte hartzea, esperientziatik Google-ek eskura jartzen dizkigun informazio- eta komunikazio-tresnak, bakoitzak bere eguneroko lanean erabili ahal izateko.		X	X	-Jardueraren balorazioa irakasleen zein IKT atalaren aldetik

JARDUERAK	BALIABIDEAK	ARDURADUNAK
1. Irakasleek zein ikasleek baliabide informatikoak –ordenagailuak, eramangarriak, arbela digitalak eta tabletak- erabiltzea.	-Informatika-gela, 12 ekiporekin. -Haur eta lehen hezkuntzako ikasgela guztietan ekipo bat edo bi -5. eta 6. mailako ikasgelak eramangarriekin -5. mailako ikasgelak tabletekin -Lehen hezkuntzako gela guztiak arbela digitalarekin	-Zentroko IKT atala -Irakasleak
2. Edmodo plataforma diseinatzea	-Giza baliabideak	-IKT atala
2. Haur-hezkuntza 5 urteko ikasgeletan arbela digitala jarri eta erabiltzea.	Arbela digitalak Egindako eta eskuragarri dauden materialak	-Haur-hezkuntza 5 urteko tutoreak
3. Programa informatikoak erabiltzea; curriculum alor ezberdinekin lotutako webguneetan informazioa kontsultatu edo bertatik biltzea, ikasleen mailaren arabera.	-Maila bakoitzeko informatika-saioen programazioak -Sarean eskuragarri dauden webguneak	-Zentroko IKT atala -Irakasleak
4. eTwining programaren arabera, literaturako lana egitea, tutoreen, 6. mailako ikasleen eta zentroko IKT koordinatzailearen inplikazioarekin.	-Programaren oinarriak	-IKT ataleko koordinatzailea
5. Interneterako konexioaren hobekuntza eta lehen hezkuntzako 5. mailako ikasgeletan beharrezkoa den materialak jartzea tabletak erabiltzeko Samsung-en programaren arabera, Hezkuntza Sailaren laguntzaz.	-Konexiorako elementuak	-Zuzendaria -Saila
6. Proiektuaren koordinatzailea, Berritzeguneko aholkularia eta Samsung enpresako proiektuaren arduradunaren arteko batzarrak egiteko ordutegiak antolatzea.	Ordutegien txantiloia eta ordutegiak	-Proiektuaren koordinatzailea -Ikasketa-burua
7. Koordinatzaileak eta lehen hezkuntzako 5. mailako irakasleek tabletekin landuko den curriculum-programa zehaztea.	-5. mailako curriculum -Jarduera-programa -Tabletak	-5. mailako tutoreak

<p>8. 5. Mailako ikasleekin Samsung programa abiatzea hainbat fasetan.</p>	<p>-Programaren faseak</p>	<p>-Zuzendaria -Samsung-eko koordinatzailea -Berritzeguneko IKT aholkularia -Programaren irakasle koordinatzailea -5. mailako irakasleak</p>
<p>9. Kueto Mass Media jardueran parte hartzea eta berau aurrera ateratzea; lehen hezkuntzako hiru zikloetan kokatuko diren hiru jarduera: <i>Kuetoari Aldizkaria (1. zikloa)</i>, <i>Kueto Irratia (2. zikloa)</i> y <i>Kueto Tebista (3. zikloa)</i>.</p>	<p>-Ordenagailuak -Inpresorak, fotokopiagailuak -Grabazio-programak -Kamerak eta irudi-grabagailuak</p>	<p>-IKT atala -Irakasleak</p>

C.- ANTOLAKETAREKIN LOTURIKO HELBURU ETA JARDUERAK

HELBURU OROKORRAK	HELBURU ZEHATZAK	KRONOGRAMA			LORPEN ADIERAZLEAK
		14-15	15-16	16-17	
<u>D.1-KOORDINAZIOAK ETA LANEN BANAKETA</u> 1. Giza baliabideak eta denbora erabilgarria errentabilizatzea diseinatutako programa eta plan ezberdinek sortuko dituzten beharrak eraginkortasunez asetzeko	1.1. Atazen arduradunak izendatzea	X	X	X	-Egindako atazen lorpen- eta asebetetze-mailaren balorazioa
	1.2. Orduategiak antolatzea, programa ezberdinak aurrera ateratzen ari direnen eta ikasleen arteko koordinazioa egin ahal izateko eta maila bereko tutoreen arteko koordinazioa bermatzeko.	X	X	X	-Orduategien banaketarekiko asebetetze-maila -Programa ezberdinen memoria-txostenak
	1.3. Guraso ordezkari, Guraso Elkarte eta zentroko jardueretan parte hartzen duten bestelako kanpo-eragileekin egingo diren koordinazio eta bileretako egutegiak eta orduategiak planifikatzea	X	X	X	-Egutegi eta orduategiekiko asebetetze-maila
<u>D.2-DOKUMENTAZIOA</u> 1. Zentroko dokumentazio guztia eguneratua izatea, kudeaketarako elementu aktibo gisa.	2.1.1 Zentroaren Hezkuntza Proiektua berrikusi eta eguneratzea		X	X	-Dokumentuaren aurkezpena eta zabalpena.
	2.1.2 Zentroko dokumentazioa berrikusi eta zuzentzea, beharrezkoa balitz, genero-ikuspegia txertatzeko.	X	X		-Berrikusitako dokumentuen balorazio kuantitatibo eta kualitatiboa erregistro-orrien bitartez.
	2.1.3. Zentroko dokumentazioaren antolaketa digitalari euste modu argi eta eskuragarrian.	X	X	X	-Dokumentazioaren eskuragarritasuna eta antolaketaren balorazioa.
	2.1.4. Ikasturte hasieran webgunea estreinatzea eta eguneratuta edukitzea.	X	X	X	-Webgunearen erabiltzaileen asebetetze-maila, galdetegiaren bitartez.

2. Aniztasunaren arreta-plana ikuspegi inklusibotik egituratzea.	2.2.1. Aniztasunaren arreta-plana berrikusi, eguneratu eta gizarteratzea.	X			-Dokumentua berrikusita eta onartuta
	2.2.2. Banakako errefortzu-planak (EEBP) operatibo gitea	X	X	X	-Ikasleen emaitza akademikoak -Familien inplikazio-maila
	2.2.3. BIDELAGUNA eskolaz kanpoko ordutegiko ikasleen laguntza-planarekin jarraitzea eta eguerdiko ordutegian ikasle ijitoei laguntzea.	X	X	X	-Ikasleen emaitza akademikoak. -Tutoreen eta begiraleen asebetetze-maila.
	2.2.4. AMUGE ikasle ijitoen laguntza-planarekin jarraitzea eguerdiko ordutegian.	X	X	X	-Ikasleen emaitza akademikoak. -Tutoreen eta begiraleen asebetetze-maila.
	2.2.5. Berariazko beharrianak dituzten ikasleekiko erantzun-markoa garatzea, hezkuntza-laguntza emanez.	X	X	X	-Ikasleen emaitza akademikoak. -Tutoreen asebetetze-maila.
HELBURU OROKORRAK	HELBURU ZEHATZAK	14-15	15-16	16-17	LORPEN-ADIERAZLEAK
D.3- LANGILEEN PRESTAKUNTZA 1. Irakasle eta hezitzaileak eguneroko jarduerak bideratzeko tresna eta baliabidez hornitzea, Sailak, Berritzeguneak eta zentroak barne mailan antolatutako berariazko prestakuntzaren bitartez.	3.1.1 Euskararen irakaskuntza. ikaskuntza eta erabilerari buruz normalizazio proiektuan planteatutako ikastaro, hitzaldi eta jardueretan aktiboki parte hartzea.	X	X	X	-Parte-hartzearen portzentajea -Asebetetze-maila -Ikasgelari egiten dion ekarpen-maila
	3.1.2 Berdintasunari eta genero-indarkeriaren prebentzioari buruzko sentsibilizazio-hitzaldietan parte hartzea	X	X	X	-Parte-hartzearen portzentajea -Asebetetze-maila -Ikasgelari egiten dion ekarpen-maila
	3.1.3. Ikasleekin lantzeko proposatutako proiektu eta programei buruzko prestakuntza-saioetan parte hartzea.	X	X	X	-Proiektuetan inplikaturako irakasleen parte-hartzearen portzentajea. -Prestakuntza-saioen balorazioa. -Ikasgelan aplikatze-maila

	3.1.4. Berritzeguneak antolatutako alor edo esparru ezberdinetako mintegi edo jardunaldietan parte hartzea.	X	X	X	-Prestakuntza-saioen balorazioa. -Ikasgelan aplikatze-maila
	3.1.5. Ikastaroetan parte hartzea: IRALE, PREST GARA, bestelakoak...	X	X	X	-Prestakuntza-saioen balorazioa. -Ikasgelan aplikatze-maila

KOORDINAZIOEKIN ETA LANEN BANAKETAREKIN loturiko JARDUERAK	BALIABIDEAK	ARDURADUNAK
1. Parte-hartzearen eta antolaketaren organigrama osatzea.	-Atazen eta arduradunen zerrendak	-Zuzendaritza-taldea -Ataza bakoitzaren arduraduna
2. Irakasleen arteko koordinazioen egutegiak eta egutegiak egin eta zabaltzea.	-DAE	-Ikasketa-burua -Irakasleak
3. OMR, Batzorde Pedagogikoa, Elkarbizitzaren Behatokia, Jantokiko Batzordea, guraso ordezkariak, GE, ama ijitoen taldea, Bidelaguna eta AMUGE eskola-laguntzarako programetako begiraleekin egin beharreko bilera eta koordinazioen egutegiak eta ordutegiak egitea eta zabaltzea.	-Denbora zehatzak -Irakasleen gela	-Zuzendaritza-taldea

IKASTETXEAREN HEZKUNTZA-PLANAREN, ANIZTASUNAREN ARRETA PLANAREN ETA DOKUMENTAZIO OROKORRAREN BERRIKUSPENAREKIN loturiko JARDUERAK	BALIABIDEAK	ARDURADUNAK
1. Ziklo bakoitzeko irakasle banak, aholkulariak eta zuzendaritza-taldeak osatutako batzordeak ZHP berrikusi eta eguneratzea.	-Dokumentua (ZHP) -Giza baliabideak	-Batzordea
2. Zikloetan dokumentua irakurri eta zuzentzea eta klaustroak onartzea.	-ZHP berrikusia eta eguneratua	-Zikloko koordinatzaileak
3. Pedagogia Terapeutikoan adituak eta aholkulariak Aniztasunaren Arreta Plana berrikustea.	-Egungo Aniztasunaren Arreta Plana	-Aholkularia eta Pedagogia Terapeutikoko irakasleak
4. Hezkuntza Errefortzurako Planen beharrezko eranskinak betetzea.	-HEBP eranskinak	-Aholkularia -Tutoreak -Familiak
5. Planaren akordio, konpromiso eta jarraipenaren sinadura familiekin.	-Familien inplikaziorako konpromisoaren dokumentua	-Aholkularia/tutoreak -Familiak
6. Bidelaguna eta AMUGE programetako begirale, 5. eta 6. mailako irakasle, programaren koordinatzaile eta begiraleen kontratazio enpresekiko koordinazio-	-Giza baliabideak -Egutegi eta ordutegi txantiloak	-Ikasketa-burua -Programen koordinatzaileak
7. Irakasleen ordutegiak antolatzea, hezkuntza-laguntza behar duten ikasleei erantzun ahal izateko.	-Lehen hezkuntzako tutoreen ordu berdeak	-Ikasketa-burua -Lehen hezkuntzako tutoreak
8. Ziklo bakoitzeko irakasle banak osatutako batzorde batek zentroko dokumentazioa berrikusi eta zuzentzea, beharrezkoa balitz, genero-ikuspegia txertatze aldera.	-Dokumentuak	-Batzordea
9. Zentroko dokumentazio digitalizatuaren ordena mantentzea.	-Dokumentazio digitalizatua -Zerbitzaria, driver-ak...	-Zuzendaritza-taldea -IKT atala
10. Webgunearen mantenimendua	-Ekonomikoak -Giza baliabideak -Edukiak	- Zuzendaritza-taldea -IKT atala -Irakasleak -Mantenimenduz arduratzen den enpresa

PRESTAKUNTZAREKIN loturiko JARDUERAK	BALIABIDEAK	ARDURADUNAK
1. IRALEko haur eta lehen hezkuntzako irakasleentzako “Lagunen arteko hizkera” ikastaroan parte hartzea	-IRALE deialdia	-Irakasle parte-hartzaileak
2. Haur eta lehen hezkuntzan ahozko adierazpena lantzeko moduei buruzko Uri Ruiz Bikandiren hitzaldian parte hartzea.	- Hizlaria -Ekonomikoak	-Normalizazio proiektuaren koordinatzaileak -Irakasle parte-hartzaileak
3. Klaustroak eta hezitzaileak ABIPASEren berdintasunari eta indarkeriaren prebentzioari buruzko hitzaldian parte hartzea.	-Hizlaria	-Koedukazio-proiektuaren koordinatzailea
4. Normalizazio, bikotekako irakurketa, bikotekako idazketa, lan kooperatiboa, talde interaktiboak eta Samsung proiektuetako prestakuntzan parte hartzea.	-Proiektu bakoitzari dagokion materiala	-Berritzeguneko aholkulariak -Proiektuen koordinatzaileak -Irakasleak -Talde interaktiboetarako boluntarioak
5. Irakasleek Berritzeguneak edo bestelako elkarte edo erakundeek antolatutako alor edo esparru ezberdinetako mintegi edo jardunaldietako bakoitzean parte hartzea ikasturtero .	-Proiektu bakoitzari dagokion materiala	-Irakasle parte-hartzaileak
6. Ikasturte bakoitzaren hasieran , euskararen irakaskuntza-ikaskuntza eta erabileraren hobekuntza, teknologia berriak, elkarbizitza eta koedukazioa, emaitzen hobekuntzarako metodologia eta dinamika integratzaileak eta abarri buruzko prestakuntzan parte hartzea, uneko beharren arabera.	-Proiektu bakoitzari dagokion materiala	-Zuzendaritza-taldea -Proiektuen koordinatzaileak -Irakasle parte-hartzaileak

C.- PARTE-HARTZEAREKIN ETA LANKIDETZAREKIN LOTURIKO HELBURU ETA JARDUERAK

HELBURU OROKORRAK	HELBURU ZEHATZAK	KRONOGRAMA			LORPEN ADIERAZLEAK
		14-15	15-16	16-17	
1.Familien eta bestelako eragileen elkarlan-egiturari eustea, eta parte hartzeko gune berriak sortzea	1.1. Guraso elkartearekiko koordinazioekin jarraitzea	X	X	X	-Egindako jardueren lorpen- eta asebetetze-mailaren balorazioa
	1.2. Ikasgelako ordezkari diren gurasoekiko hiruhileroko batzarrei eustea	X	X	X	-Inplikazioaren eta hobekuntzarako iradokizunen balorazioa
	1.3.Ama ijitoen taldearekiko batzarrei eustea	X	X	X	-Euren seme-alaben eskola-jarraipenean izandako inplikazioaren balorazioa
	1.4.Kanpoko eragileekiko informazio elkartrukatzeko batzarrei eustea (udaleko eta aldundiko gizarte-zerbitzuak, APNABI, ARTIZAR, AMUGE...)	X	X	X	-Elkarlanaren balorazioa zerbitzu horiek behar dituzten ikasleen jarraipenean
	1.4.Ikasle ohiekin, unibertsitateko ikasleekin eta familiekin boluntarioen batzordea sortzea, ikasleekin talde interaktiboetan parte har dezaten	X	X	X	-Parte-hartze maila -Ikasleen asebetetze-maila -Ikasleen eskola-emaitzak
Kanpo eragileen eta boluntarioen PARTE-HARTZE ETA LANKIDETZAREKIN loturiko JARDUERAK		BALIABIDEAK			ARDURADUNAK
1.Koordinazio eta batzar ezberdinak egiteko egutegiak egitea		Giza baliabideak Ordutegien txantiloak			-Zuzendaritza-taldea -Aholkularia -Ikasketa-burua
2. Boluntarioen batzordea eratzea		Giza baliabideak			-Koordinatzailea

3.- GARAPEN PROZESUA

➤ **TENPORALIZAZIOA**

Gure proiektu globala hiru ikasturteei dagozkien hiru momenturen arabera antolatzen da. Hala ere, proiektu global osoan zehar garatuko diren alderdiak ere badira, hala nola Koedukazio Proiektua edota bestelako arloekin lotutako proiektuak: lankidetzako ikaskuntzarako metodologia eta dinamikak, IKTen erabilera, irakasleen prestakuntza eta jarraipen- eta ebaluazio-prozesuak.

Lehen ikasturtean (2014-2015), Koedukazio Proiektuaren hasieran eta genero-indarkeriaren prebentzioan ipiniko dugu arreta nagusiki, genero-berdintasunari buruzko diagnostiko eta sentibilizazio prozesuari, Zentroko **Hezkuntza Proiektuaren berrikusketari** eta IKTekin lotutako **Samsung proiektuari** ere garrantzia emanez.

Euskarazko ahozko adierazpena hobetzeko hausnarketa, Aniztasunaren Arreta Plana berrikusi eta eguneratzea, proiektua bera bere alorretan zehaztea, organigrama eta lantaldeak eratzea eta ekintza ezberdinen planifikazio orokorra.

Bigarren ikasturtean (2015-2016) balorazioari ipiniko diogu arreta handiagoa, baita indarkeriaren eta genero-indarkeriaren prebentziorako protokoloetan eta berdintasunaren aldeko ekintzetan sakondu ere; lankidetzan oinarritutako irakaskuntza-ikaskuntza proiektuekin jarraituko dugu, euskararen erabilera sustatzeko ekintzak nabarmenduz, eta proiektuaren baloraziorako galdetegiak osatuko ditugu.

Hirugarren ikasturtean zehar (2016-2017) Zentroko Hezkuntza Proiektua berridatziko da, eta eskola-komunitatearen onarpena jasoko du.

Irekitako prozesu guztiek martxan jarraituko dute eta egoera ezberdinetarako prozesu eta protokoloak fintzen joango dira; eta proiektu globalaren ebaluazio eta balorazio-prozesua irekiko dugu, curriculumarekin zein koedukazio proiektuarekin lotutako proiektu bakoitzaren berariazko balorazioak eta memoria-txostenak kontuan hartuz.

➤ **TALDE DINAMIZATZAILEAREN OSAERA ETA KOORDINAZIOA**

Talde dinamizatzailea proiektuaren koordinatzaileak, ziklo bakoitzaren ordezkari den irakasle banak eta zuzendaritza-taldeak osatuko dute. Taldean, edozein momentutan, osaeraren aldaketak gerta daitezke, baita kopuruan ere. Klaustroko kideen arteko harremanak onak eta atseginak dira eta, beraz, komunikazioa bermatuta dago.

Talde dinamizatzailearen koordinazioa bi hileroko batzar batean planifikatzen da jarraipena eta proiektuaren egokitzapenak egiteko, gainerako proiektuen eta lantaldeen koordinazioen arabera.

Berritzeguneko koordinatzailearen eta zentroko koordinatzailearen eta zuzendaritza-taldearen arteko bateratzea momentu zehatzetan baino ez da izan, eta hala izango da gero ere: proiektua egiten hastean, memoria-txostena egiteko jarraipena eta orientazioa egiteko saio zehatzak eta horren balorazioa.

Talde honetatik helaraziko da informazioa zikloetara. Zikloetako proiektuari buruzko lanari lekua egingo zaio asteazkenetako prestakuntza-saioetan, eta horiek ikasturte hasieran antolatuko dira, gainerako proiektuetako lan-saioak bezalaxe.

➤ **ARDURAK ETA ESKUMENAK**

Proiektuak berak ematen dio batasuna lanari, baita berak ordenatu ere, dagoeneko lan handia egiten ari baita irakasleen inplikazio handiarekin; horrek guztion parte-hartzean sakontzeko eta hezkuntza-komunitateko estamentu gero eta gehiagorengana zabaltzeko indarra ematen du.

Baina bestelako eginbehar eta arduradun batzuk are gehiago zehaztea ere ahalbidetuko digu, jarduerak ere zehazten doazen heinean.

➤ **LAN-METODOLOGIA.**

Proiektuak talde dinamizatzailerak proposatzen du eta, koordinatzailearekin batera, horixe izango da lana planifikatzeko ardura izango duena. Hortik, irakasle taldearen lanera pasatuko gara, irakaskuntza-ikaskuntza estrategiak zikloka diseinatuz. Beste momentu batzuetan, talde naturalak sortuko dira.

Beste alderdi batzuei, aldiz, batzorde edo lantalde berezituak osatuz egingo zaie aurre.

Lan-saio bakoitzean egindakoa baloratzeko dokumentua izango da eskura, baita hurrengo ekintzetarako kontuan hartzeko ere; egindako ekintzen balorazio-fitxa izango da egokitzearen, prozesua, lorpenak eta curriculum baloratzeko.

Aurreikusitako epeak ere baloratu egingo dira, ez-betetzeak saihesteko aldera.

Materialen osaketa eta prozesu ezberdinen prestaketa asteazkenetako prestakuntza-saioetan egingo dira.

Jarraian, egitekoa den ekintza esparru egokira bideratuko da (ikasgela, jolastokia, lantaldea...); hurrengo pausoa jardura eraginkor eta koherentetzat jotzea izango da: zentroaren curriculumean sar daitekeen jardura. ***Proiektu honen asmoa da praktikak instituzionalizatzea, eskola-jardueran egonkor eta iraunkorrak izan daitezen.***

➤ **BALIABIDEAK: GIZA BALIABIDEAK, PRESTAKUNTZAKOAK, MATERIALAK, DIDAKTIKOAK, FUNTZIONALAK**

GIZA BALIABIDEAK

Pertsonak dira proiektuaren atali garrantzitsuenak.

Ikasleak proiektuaren eragile aktibo gisa, eta zentroan egiten diren proiektu guztietako protagonista.

Irakasleak, hau guztia abiatzeko ardura duten profesionalak; irakasle bakoitza bere mailatik, tutoretzetatik eta espezialitateetatik. Proiektu honetan guztiok ditugu parte hartzeko eta ardura hartzeko aukera berdinak.

Familia. Gure zentroaren eraikuntzarako elementu gakoak da. Familiek gure lanean sinesten badute eta gurekin elkarlanean aritzen badira, errazagoa izango da gure haurrentzat emaitza onak lortze alor guztietan, pertsona gisa, batik bat.

Berritzeguneko aholkularien baldintzarik gabeko babesa eta kalitatezko aholkularitza ere baditugu.

Bi irakasle ohiren eta ikasle ohi baten babesa, talde interaktiboetarako boluntario gisa; talde hori handitzen joatea espero dugu, erreferentziatzeko institutuko ikasleekin eta irakasle-eskoletako ikasleekin.

Artizar Taldearen babesa, gizarte-bazterketa pairatzeko zorian diren ikasleak eskolaz kanpoko orduetan artatzen dituenak, eskola-laguntza eta aisialdiko arreta emanez eta familiekin lan eginez.

PRESTAKUNTZAKOAK

Gure zentroan prestakuntza baliabide iraunkorra da. Irakasleen interesa eta parte-hartze maila jasoak dira, euren eguneroko zereginen hobetzeko prestatuta baitaude.

Azken urteotan, ikasturte hasieran, klaustro osorako prestakuntza-saioak eman izan dira, alor ezberdinei buruzkoak.

Prestakuntza-baliabide ohikoenetakoa da irakasleen ezagutza kultural eta profesionalak, eta maiz ez dugu hori behar bezala baloratzen. IKTen arloko prestakuntza bermatuta dago koordinatzaileari eta atal horren ardura dute irakasleei esker.

MATERIALAK

Proiekturako erabiliko dira egun zentroak dituen baliabide guztiak. Bulego-material xumeenetik hasita, ikasgela gehienetako teknologia-ekipamendu bikaineraino, arbela digitalak lehen hezkuntzako ikasgela guztietan, ordenagailu pertsonalak 3. zikloko ikasle guztientzat eta tabletak 5. mailako ikasle eta irakasleentzat.

Zuzendaritza-taldeak beti jarri ditu eskuragarri izan dituen baliabide guztiak zentroa hobetzeko izan diren proiektu eta ekintzetarako.

DIDAKTIKOAK

IKT ataleko irakasleak eta erlijioeko irakaslea informatikan adituak dira, beraz, bermatuta ditugu ekipoen azterketa errazak eta programa ezberdinei buruzko prestakuntza barne mailan.

Liburutegia eta bertako arduraduna baliabide didaktiko beharrezkoa eta oso erabilgarria dira.

Hizkuntza Normalizaziorako Planaren arduraduna, dokumentu ofizialenak ere itzultzen dituen irakaslea.

Bi irakasle aditu eskola-ortuan.

FUNTZIONALAK

Asko dira ikasturteetan zehar osatzen joan garen dokumentuak, zentroaren antolaketan eta martxan laguntzen digutenak: ZHP, zentroaren Nortasun Gutuna, Aniztasunaren Arreta Plana, Agenda 21 proiektua, Tutoreen Ekintza Plana, Ikasle Atzeritarren Harrerarako Plana, ikasturte hasierarako Ikasleen Harrera Plana...

Dokumentu horiek guztiak Plan Integral honen oinarriak finkatzeko abiapuntua dira.

4.- PROIEKTUAREN EBALUAKETA ETA JARRAIPENA

Azken urteotan, lehen lanegunean, harrera ekintza bat egiten dugu eta, ondoren, memoria-txostenetan jasotako hobekuntza-proposamenak irakurtzen ditugu kontuan hartzeko.

Hobekuntza horietako bakoitza noren ardura den ere zehazten dugu.

Funtzionamenduari eta kudeaketari buruzko eta gure praktikari buruzko barne-ebaluazioa egiten ohituta gaude, eta Proiektu honek barne ebaluazioa eta auto-ebaluazioa finkatzea du xede, hobekuntzarako nagusiki, komunitate guztiaren parte-hartzearekin.

Proiektuaren baloraziorako, honako ereduak proposatzen ditugu:

Jarraipena

- Egindako jardueren balorazio fitxak, prozesuen, metodologiaren eta proiektu integralaren koordinazioen jarraipena egiteko.
- Talde dinamizatzailearen batzarretako aktak, eta zikloetan egindako lanarenak (iritziak, dokumentuak, testuak, akordioak eta prozesu osoan zehar egiten joango diren bestelako ekarpenak).
- Galdetegiak.

Prozesuaren urteroko ebaluazioa

- Ikasleen emaitza akademikoak.
- Pertsonen arteko harremanak.
- Berriazko proiektuen memoria-txostenak eta ebaluazioak.
- Klaustroaren balorazioa, honakoa baloratuko da: informazioa, prestakuntza, koherentzia, koordinazioa, eraginkortasuna eta erabilgarritasuna, komunikazioa, prozesuak, norberaren eta taldearen inplikazioa eta hobekuntza, zentroan eta eskola-komunitatean izan duen eragina.
- Talde dinamizatzaileak egindako ebaluazioa, euren iritzi pertsonalak gaineratuz.
- Familiak eta ikasleek paper garrantzitsua izango dute, proiektuaren atal zehatzen ezagutzan eta horietako inplikazioan.

Proiektuaren azken ebaluazioa

- Hiru ikasturteetako memoria-txosten bateratua egingo da, prozesu osoaren balorazio globalarekin.
- Proiektuan zehar bildutako akten eta dokumentuen liburuarekin osatuko da, baita talde dinamizatzailearen balorazioarekin ere.

PLAN INTEGRAL CEIP KUETO HLHI

CURSO 2014-2015

1.- JUSTIFICACIÓN Y EJES DEL PLAN INTEGRAL

DIAGNÓSTICO

El CEIP KUETO HLHI, desde sus inicios, es un centro destacado por su implicación con el entorno y la innovación.

Nuestro centro está ubicado en la zona media de Sestao sin embargo su área de influencia abarca toda la zona baja del municipio en donde está ubicada la mayoría de la infravivienda.

En este momento escolarizamos a 445 alumnos y alumnas de los cuales 325 son becarios.

El índice socio económico de las familias de nuestro centro, obtenido de las pruebas diagnósticas de los últimos años, se corresponde con -1.

El euskera como lengua familiar en nuestro caso no llega al 8% mientras que la de la comunidad se sitúa en torno al 23 %. Otras lenguas tienen una presencia del 14%, mientras que en Euskadi es del 5,6 %.

La riqueza cultural es grande, el porcentaje de nuestro alumnado extranjero es de 15 % aproximadamente (la media de Euskadi en un 5,3) y de alumnado gitano de un 10 %.

En lo que respecta a la idoneidad del alumnado nuestra media oscila en torno al 80% cuando la media de la comunidad es de un 90 %.

Con respecto a la matrícula destacar que durante el curso son muy habituales los traslados y nuevas incorporaciones, en bastantes casos con un gran desfase curricular e incluso desescolarización.

En lo que respecta a la participación de las familias destaca un grupo de ellas muy implicadas en la participación y colaboración tanto del seguimiento escolar como de la organización de la actividad complementaria.

Teniendo en cuenta todos estos datos nuestro centro ha tenido muy claro hacer una apuesta por la innovación, la formación, la convivencia y participación como elementos claves para la respuesta a la diversidad y la búsqueda de mejores resultados.

La finalidad de los planes de formación y los proyectos de innovación que venimos desarrollando en los últimos cursos es la de conseguir que la escuela sea un lugar en el que todo el alumnado, teniendo en cuenta sus posibilidades, pueda desarrollar al máximo sus capacidades buscando metodologías y herramientas facilitadoras. En el ámbito curricular consideramos el Proyecto de Normalización Lingüística eje vertebrador de todos los proyectos relacionados con el curriculum. Si mejoramos la comprensión y expresión en la lengua vehicular favorecemos y facilitamos el aprendizaje de otras áreas.

El Plan de Convivencia y los diferentes planes de acogida sientan las bases del ámbito relacional y emocional de los integrantes de nuestro centro, porque consideramos que una buena convivencia facilita un buen aprendizaje.

La participación, el sentimiento de pertenencia facilitarán la proyección del centro a la comunidad así como la integración de ésta en el centro.

Creemos en una escuela que potencie el desarrollo integral y armónico del alumnado teniendo siempre como referentes la calidad educativa, igualdad de oportunidades, la equidad, solidaridad, justicia... que permitan a todos y todas poder superar sus desigualdades de origen facilitando así personas creativas, con criterio, autónomas y con iniciativa y actitud emprendedora.

En base a todo esto y teniendo en cuenta nuestro Proyecto Educativo, el plan de mejora planteado en el curso 2013-2014 y de las necesidades que se han planteado en las memorias, a lo largo del curso 2014-2015 nos planteamos diseñar y desarrollar un plan integral basado en estos 4 ejes:

LIDERAZGO PEDAGÓGICO

- ✓ Análisis de resultados y Plan de mejora
- ✓ Metodologías y dinámicas integradoras:
 - Aprendizaje cooperativo
 - Leyendo en pareja
 - Escribiendo en pareja
 - Compañero de apoyo en euskera
 - Grupos interactivos
 - Tertulias dialógicas

PROYECTOS ESTRATÉGICOS

COEDUCACIÓN Y CONVIVENCIA

- ✓ Plan de convivencia
- ✓ Observatorio de la convivencia
- ✓ Plan de acogida
- ✓ Plan de coeducación

TECNOLOGÍAS DE LA INFORMACIÓN Y COMUNICACIÓN

- ✓ Página web
- ✓ Proyecto Samsung
- ✓ Recursos tecnológicos: herramientas y programas

PLAN INTEGRAL KUETO HLHI 2014-2016

ORGANIZACIÓN

- ✓ Definición de grupos de trabajo
- ✓ Coordinación como eje prioritario
